

13. gaia: Antzin Aroa: akitaniera

Bigarren Hizkuntza II: Euskara

2018/2019

Ricardo Gómez

Protohistoria

- Zehazki historia-historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garaia
- Lekukotasunak bai, baina gehienak zeharkakoak:
 - toponimo, antroponimo eta teonimoak
 - sintagmak eta perpauk zatiak
 - testu txikiren bat ere bai
- Historiaren zenbait alderditan aurreratzeko balio digu
- Bi aurrerabide:
 - euskara hitz egiten zela eta non hitz egiten zen
 - euskara bera nolakoa zen

Protohistoriaren garaiak

Aitzineuskara zaharra

Aitzineuskara berria (duela 2000 urtetik atzera?)

1. Akitaniera (I-III. mendeak)

Euskara Batu Zaharra (VI-VIII. mendeak?)

2. Erdi Aroko euskara (IX-XV. mendeak)

3. Euskara arkaikoa (1400-1600 arte)

4. Euskara zahar eta klasikoa (1600-1745)

5. Lehen euskara modernoa (1745-1890)

6. Azken euskara modernoa (1891-1968)

7. Euskara batua (1968tik aurrera)

Akitaniera: izena



Testuinguru historikoa

- K.o. I-III. mendeetako lekukotasunak
- Erromatarren konkista (K.a. II-I. m.)
 - Iparraldeko konkista
 - Akitaniako ekialdea → K.a. 110-106
 - Akitaniako gainerakoa → K.a. 56
 - Hegoaldekoa
 - Graccurris → K.a. 179
 - Pompaelo (Iruñea) → K.a. 75-74
- Inperioaren gainbehera → K.o. III. m.
- Erromantzeen jaiotza → K.o. V-X. m.

Hegoaldean ere bai



- Lergako hiliarria (1960an aurkitua):

VM.ME.SA.HAR.FI

NAR.HUN.GE.SI.A.BI.
SVN.HA.RI.FI.LIO
ANN.XXV.T.P.S.S.

Hegoaldean ere bai

- Baskoi zaharren lurraldeetan eta haratago:
 - Nafarroan
 - SELATSE, LOXAE, LARRAHI...
 - Araban
 - ATTIA, HELASSE, LUNTBELSAR...
 - Oiartzun
 - BELTESON
 - Aragoi aldean
 - SERHUHORIS...
 - Sorian eta Errioxan (Cidacos-Linares ibaiak)
 - SESENCO, ONSE / ONSO, AR...THAR

Euskal Herritik kanpo

- Rin ibaiaren hondoko botozko xaflak
 - 19 izen, ez denak berri (Gorrochategui 2003)
 - Andossus, Bonxus, Banbixxi, Bioxxi, Sembus...
 - Obbelexxi, Xembesus, Xembus...

Gorrochategui, Joaquín, 2003, “Las placas votivas de plata de origen aquitano halladas en Hagenbach (Renania-Palatinado, Alemani)”, *Revue Aquitania* 19, 25-47.

Corpusaren izaera

- Corpus hizkuntzak
 - corpus jakin eta itxia dutenak (hildakoak)
 - latina, greko zaharra, sanskritoa...
- Hondar-hizkuntzak
 - kopuruan
 - zeltiberierak → 1.500 bat hitz
 - akitanierak → 500 bat hitz
 - nolakoan
 - zeltiberierak, etruskoak... testuak
 - akitanierak onomastika baino ez (eskaintzak jainkoei, hilarriak, norbaiten ohoretan egindako idazkiak)
 - tartesiera okerrago
 - 100 bat hitz
 - erdiak irakurtezinak

Lekukotasunak

- Harri gaineko idazkiak:
 - Hilarriak
 - Omenezkoak
 - Jainkoei egindako eskaintzak
- Latinez
- Antroponimoak (± 400) + teonimoak (± 70)
- Toponimo batzuk, idazle klasikoek aipatuak:
Oiasso (G), *Ilumberritani* (N), *Andelos* (N)...

Galdera metodologikoak

- Puxketa horiek “akitania” direla, fede kontua ote?
- Nola atera haietatik hizkuntzari buruzko informazioa?
- Euskararen aurreko hizkuntz egoera?
ALA...
- Euskararen arbasoaren ahaide urkoa?

Hizkuntzat hartzeko argudioak

- Antzinateko idazleen lekukotasun argiak:
 - Estrabon: “Akitaniarrak oso desberdinak dira [belgiar eta zeltekin konparatuz], hizkuntzari ez ezik, gorpuzkerari dagokionez ere, eta iberiarren antz handiagoa dute”
- Inskripzioen banaketa geografiko zehatza
- Begi-bistako ezberdintasunak auzoko izenetatik
- Erro-atzizkien erabilera koherentea

Zein hizkuntza? Zer da “akitaniera”?

- Latina alde batera utzi behar
 - **Andoxus, Bihoxus, Bonxorius** (2 mask nom sing)
 - **Andossi, Bihossi, Bonxi** (2 mask genit sing)
 - **Estenconis, Hanaconis, Harontarris** (2 mask dat/abl pl)
 - **Bonnae, Bocontiae, Lanae** (1 fem genit/dat sing)
- Izen bereziek esanahirik ez
 - Azterketa formala (semantikarik gabekoa): izenetan suma ditzakegun osagaien analisi konbinatorioa
 - **Sembe-conis, Belex-conis, Har-belex...**
 - Etimologia (ik. Ariztimuño 2011)
- Corpus urria
- Erkatzeko familiakiderik ez
- Lagungarri bakarra: euskara (+ aitzineuskara)

Euskara? Euskararen ahaidea?

- Zer da akitanierazkoa eta zer ez?
 - Euskara historikoaren bitartez etimologia ona dutenak: **Umme Sahar**
 - Hizkuntzaren egitura orokorraren aurkakorik ezer ez izanik, beste inon lekukotzen ez direnak: **Abisunhari**
 - Modu berezi batez aldatuak, nahiz indoeuroparrak (latinezkoak, zeltak) izan:
 - Hibridoak: **Bambiolus, Belheiorigis**
 - Desitxuratuak: **Dunohorigis**

Euskara? Euskararen ahaidea?

- Euskal etimologia ona
 - talde semantiko berekoak
 - antroponimian-eta espero izatekoak
 - Sexua, ahaidetasuna, adina: **Andere, Nescato, Sembe, Seni...**
 - Animaliak: **Hars-, Oxson-, Aher-, Asto-**
 - Koloreak: **Corri-, Belex**
- Ezaugarri formaletan euskararen berdina edo antzekoa:
 - hitz eta sintagmen eraketa: **Ilurberrixo**
 - atzizkien erabilera
 - hotsen inbentarioa eta banaketa: hasperena

Morfologia

- Atzizkibidea
 - Txikigarriak
 - -CCO(N)- (eusk. -ko) *Belexconis, Ombecco*
 - -TTO(N)- (eusk. -to) *Andostonis, Lohitton*
 - -XSO(N)- (eusk. -xo, -txo) *Bonxsus* (2. dekl.)
 - -TAR(R), -THAR(R) (eusk. -tar, -ar): *Hontharris, Halscotarris, Sentarri*
- Hitz-elkartuak: *Ilur-berri, aher-beste*

Fonologia (I)

- Bost bokal: a, e, i, o, u
- M-rik ez, alofono gisa ez bada (akit. **OMBE** > Lerga **UMME** > **ume**)
- Txistukari sistema konplexua. Grafemak:
 - **<S>**, **<SS>**, **<X>**, **<XS>**
 - frikaria (S) vs afrikatua (XS): **OXSO-** / **CISON-**
- Sabaikaritze adierazgarria:
 - **SEMBUS**, **XEMBUS**
- Dialektizaziorik?:
 - **TALSCO-** / **HALSCO-**

Fonologia (II)

- Hasperena: Auzo hizkuntzek ez
- Banaketa:
 - hitz hasieran **HARBELEX**
 - bokal artean **DUNOHORIGIS**
 - ozen ondoan LH **BELHEIORIGIS**
 - NH **ABISUNHARI**
 - RH **BERHAXS-IS**
- Grassmann-en legerik ez: **HAHANN-I**
- Herskari hasperendunak: **HONTHARR-IS**

Sakontzeko bibliografia

Koldo Mitxelena, 1954, “De onomástica aquitana” [= OC V, 197-243].

Joaquín Gorrochategui, 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: UPV/EHU; bereziki:

- “Descripción de la lengua. Cuestiones metodológicas” (62-69)
- “Dificultades” (355-356)
- “Criterios para la clasificación lingüística” (356-358)
- “Híbridos” (358)

—, 2018, “Euskara Antzinatean”, in J. Gorrochategui, I. Igartua garte & J. A. Lakarra Adrinua (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 231-286.

Luis Nuñez Astrain, 2003, “Descripción del euskera arcaico”, in [EI euskera arcaico](#), Tafalla: Txalaparta, 121-136.

Borja Ariztimuño, 2011: *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa*. Gasteiz, UPV/EHUko master amaierako lana.